



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza.TEL: 313030 IGELDO

SINDIKATUA GORA ETA BEHERA

Lehen pentsu almazena zenaeta Sindikatua bezala ezagutzen duguna, aspaldian itxita dagoen lokala



dugu.

Nekazarien kooperatibak lokal hau Igeldoko Herri Kontseiluaren esku utzi zuen, bere etorkizunerako alternatibaren bat landu eta zer egin ziteken aztertzeko. Herri Kontseiluak azterketa hauek egiteko behar diren diru laguntzak lortu ditu Eusko Jaurlaritzako Turismo Saitetik eta Mendi Nekazaritzatik.

Lana enpresa kalatalana bati agindu zitzaion, eta dagoeneko eginak eta aurkeztuak ditu proiektuaren ziriborro eta gidoiak.

Etxearen (sindikatuak) proiektua proiektu global baten barruan planteatzen dute. Proiektu global honek bi ardatz nagusi ditu:

*Igeldok nekazal ikuspegitik daukan egoera aztertu eta etorkizunera begira aukerak eman nahi ditu.

*Igeldok turismo aldetik daukan aukerak eta baliabideak eta aurreko puntuarekin nola lotu aztertzen du.

Etxeak (sindikatuak) bi ikuspegi hauek bultzatu, dinamizatu eta korordinatuko lituzke, proiektuaren gune fisiko zentrala bihurtuz.

Etxearen barruan hauek planteatzen dira:

*Baserriko produktuen salmenta eta transformaziorako lekua

*Pentsuak eta antzekoak edukitzeko almazen txiki bat.

*Herriaren interpretaziorako gunea. Bertan gure historia, paseoak emateko planoak, etab. azalduko lirake. Erakusketak eta hitzaldiak ere antolatzeko aukera emango luke. Batez ere baserria, harrobia eta itxasoa landu nahi dira.

*Taberna eta jatetxea.

*Kanpotarrentzako lotarako gelak

Proiektua hilabete gutxi barru bertan izango dugu, eta eztabaidarako eta apartazio berriak egiteko aukera izango dugu.

Planteatzen dena ez da bakarrik etxearen etorkizuna, baizik eta aipatu bi atalen garrantzia eta, maila haundi batean, Igeldo Herriaren etorkizuna.

Beraz, sortzen den eztabaida sakona izan daiteke benetean, eta deia luzatu nahi dizuegu igeldotar guztiei, proiektu interesgarri honen inguruan parte hartu, zuen iritziak eman, ideiak eta proposamenak bota eta, azken batean, proiektuaren eta gure etorkizunaren parte izateko.

Urte batzuk igaro

ondoren iritsi zaio **AUZOLAN**

IGELDORI merezi duen saria.



Aupa Auzolan Igeldo

Sokatira Taldea !!!!!!!

Hartu soka, tenka, prest, tira!

Aurtengo Euskadiko sokatira Txapelketan 560 kg-tan hirugarren postua lortu dute, brontzezko domina eskuratuz.

Hainbeste urtetako lanaren fruitua jaso dute dagoeneko eta hau hasiera batetik jardun diren mutil nahiz hasi berriak diren gazteei esker lortu da.

Oraindik ez dira iritsi garaipen onenak baina lanean jarraituz gero lortuko dituzue hobeak.

ZORIONAK

Politikoak kexatu egiten dira, baina zein fida daiteke pertsona hauetaz.

IGELDORAKO DESZENTRALIZAZIOA??

Gogoratzen al zarete herri independentea izateko eskaera egin genuenean alderdi politiko guztiak eskaera honen aurka, baina deszentralizazio baten aldeko jarrera azaldu zutela? 8 urte pasa dira.

Igeldok hasieratik esan zuen bere nahia errespetatu egin beharko luketela politikoei, batez ere legeak eskatzen zuen guztia betetzen genuelako eta herri borondateak horrela ziolako. Hala ere, independentziaren bidea jorratzen zen artean, beste formularen bat (deszentralizazioa) aztertzeo prest geundela adierazi genien.

Eta lanean ere jarri ginen. Aurrena EAJ-EA-PSE osatzen zuten

gobernu batzordearekin, eta gero PP-PSEkoek osatukoarekin. Azken hauekin aurreratu genuen gehien bat, ziriborro nahiko zehatza lortu baitzen.


Eta hara non, bapatean alderdi guztiak (EAJ eta Batasuna ezik) atzeraka hasten zaizkigu. EA eta PSEkoak ulertu ezin daitezken aitzakiak jarriz (mugen zehazpenak, kompetentzi maila hirigintzan, etab). Eta ezin dira ulertu, beraiek egindako ziriborroa delako eta bere teknikoak, politikoei azaltzen dituzten aitzakiak inolako fundamentorik ez dutela behin eta berriz esan dutelako. PPkoak berriz (EAKoak ere ez dakit horrelako zerbait ez duten ere) momentu honetan PSEkoek egiten duten guztiaren aurka jartzea erabaki dutelako.

Total, 8 urte pasa eta gero, ez dakit zenbait bilera (alkatearekin, osatu zen udal-batzordearekin, Herri Kontseilukoak,...) egin ondoren, eta gauza askotan, gure aldeko borondate ona erakutsiz, hainbat gai bidean baztertuta,... dena pikutara!

Ez hitza bete, eta gainera alperrikako lana eman herritarrei (ez esateagatik burla egiten digutela).

Igeldo bizirik iraun dezan lanean jarraituko dugu, zalantzarik gabe. Bide egokiena independentzia dela egunetik egunera garbiago ikusten dugu (zalantzaren bat daukanak prozesu honen eta udaletxak Igeldorako dituen proiektuen zehazpenak eskatu dezala).

Bukatzeko gogoratu Udalerri bihurtzeko (independentzia lortzeko) urratsak ematen ari direla Itsas Aurrekoak. Azkeneko berria Madrileko Epaitegi Gorenaren Igeldoren aldeko sententzia izan da.



Guzti honen berri, egun gutxi barru egingo den Herri Batzarrean emango dira.

Tras 8 años de falsas promesas, y tras haber elaborado un borrador de Ente Local para Igeldo, en el último momento nos dan puerta. Ante la solicitud de segregación todos los partidos políticos se posicionaron a favor de esta fórmula.

Hemos trabajado con PNV-EA-PSE y después con PP-PSE. ¿A qué vienen ahora los celos de EA y PSE ante informes elaborados por ellos mismos y con argumentos que sus propios técnicos califican de sinrazón y sorprendentes?. Entre los malos rollos de unos y otros y la nula voluntad política, los perjudicados, una vez más, los ciudadanos.

No cumplen sus promesas y además se burlan.

Ellos mismos con sus actitudes y sus proyectos desmesurados y totalmente contrarios a nuestra voluntad, refuerzan nuestra postura a favor de la segregación. Segregación que cada vez está más cerca tras la última sentencia del

Tribunal Supremo. Más detalles en la próxima Herri Batzarra.

IG-07, IGELDOKO ZABALPENA

Dagoeneko denok jakingo duzuen moduan, izen horrekin ezagutzen da, Donostiako Plan Orokorrak 1995ean finkatu zuen plaza inguruko garapena, etxebizitza berriak, eskola eta herria saihestuz doan zeharbide berria. Egia da hirigintza gai konplexua dela, eta plangintza ez dela gauek goizera sortzen den zerbait, baina baita ere egia da, Igeldorako hainbeste garrantzia duen auzi batek, beste saiatze eta arintasun bat merezi zuela eta hala espero genuen udaletxearen aldetik.

Lau urtetan garatu beharreko plan bat izanik, zortzigarrena iritsiko da kasik, eraikuntzak hasi baino lehen.

Dena dela, iragana alboan utzi eta gaurko egoerara etorrita, esan beharra dago, zorioneko Plan Partziala, Berpartzelatze Proiektua eta Urbanizatze Proiektua onartuak daudela, edo beste era batera esanez, makinak lanean jarri aurretik beharrezko diren hirigintza prozedura guztiak gaitituak daudela.

Egin beharreko etxebizitzak 72 direlarik, 24 geratzen dira jabego pribatuen eskuetan eta salmenta librea. Beste 48 VPO dira, horietatik 36 Igeldoko Lizardi kooperatibarentzat dira eta 12 udaletxearen ardurapean egingo dira. Azken hauek, Donostiako Udal Batzordearen erabakiari so eginez, alokairuan izan beharko dute eta eskaera zerrenda hiri osora zabalduko da. Kooperatibari dagokion partetik, komeni da adieraztea azken luzapenak berpartzelatze prozesutik etorri direla, kontuan hartuaz ia urte bete behar izan

duela Udaletxeak jabego horiek bere izenean jartzeko Erregistroan, eta artean berea ez zen zerbait, nekez saldu zitekeela. Alde horretatik eta azken albista dugu, Udaletxearen erabaki orokor baten ondorioz, salmenta "Derecho de Superficie" edo 75 urtetara mugatutako jabego motara egingo dela, naiz eta urteetako harremanetan horrelakorik ez adierazi. Zer esango dugu; funtsezkoa etxebizitzak herritarrentzat izatea da, eta gero gerokoak.

Eraikuntza lizentzia eskatzeko behar den Proiektu Basikoa prest dute eta aste honetan bertan aurkeztuko dute Udaletxean. Exekuzio proiektua berriz amaitzean, aurtengo udarako lehen lur mugitzeak espero direlarik.

Urbanizazioari dagokionez, esan beharra dago, Zubiri entpresak aurkeztutako eskaintza onartu dela eta epeak laburrak direnez, berehala hasiko direla errepideko lanak.

Eta aspaldian amestutako eskola berriari buruz, zer esan; ba Udaletxeak onartu duela partzelaren zesioa, eta Hezkuntza Sailaren teiltuan kokatzen dela orain pilota, kontuan hartuz jadanik proiektua egina dagoela eta aurrekontu partida aurrez finkatua. Oztupoak gairiditu direnez, ia lehen bai lehen gauzatzen den, premia ba dugu eta.


Azkenik aipamen bat, Herri Kontseilutik Udaletxera zuzendutako eskaera baten aurrean. Eraikuntza berriak kontuan izan dezatela inguru gunea. Igeldok eta bereziki bere kaskoak, ba ditu ezaugarriak orain arte mantendu direnak eta geroan kontuan hartu beharrekoak, bere nortasuna babesteko. Uste dugu, Plan Partzialak proposatutako etxeak egokiak direla gune honetarako,

banakakoak eta altueran mugatuak direnez, baina bolumenak, teiltuaren formak edo fatxadaren tratamenduak, materialak etab, ez dira finkatzen, eta ezaugarri horiek guztiz garrantzitsuak izan daitezke inguruko nortasuna mantendu edo deusezteko. Adibide esanguratsuak ditugu inguruko auzo edo herrietan, ala nola, Andoaingo Sorabilla, Aia, etab.

San Isidro Jaia Igeldon 2003

San Isidro egunean, baserriarren ohiturari jarraituz, festa giroa antolatzea erabaki dugu.

2003ko maiatzaren 15ean, osteguna



Egitaraua

ARRATSALDEAN:

19:30etan: Idi Dema
Olasagasti eta Artolaren Idien artean, 1500 kiloko harriarekin.

20:30etan: Herri Kirolak

Herriko bi taldeen artean, egin beharreko lana 2 kana erdiko

enbor moztea, 12 korte trontzarekin eta txinga.

21:00etan: Herri Afaria
Joxe Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolariak eta Alkorta anai-arreba trikitilariak bertan izango dira.

Afaria Txistu Jatetxean izango da eta osagai hauek izango ditu:

Arrain pudina	Baserriko Oilaskoa
Langostinoak	Entsalada
Txanpinoiak	Postrea
Piperbeteak	Txanpaina, kafea, kopa eta purua.

Prezioa: 24 euro

*Afariko txartelak herriko tabernetan izango dira salgai (**Txistu eta Mendizorrotz**)

*Afarian parte hartu nahi dutenek txartelak aldeztetik jaso beharko dituzte. Txartelak jasotzeko azkeneko eguna **MAIATZAREN 14a**, asteazkena, izango da.

Igeldotarrok, ea han biltzen garen denok!!

**Igeldoko
Baserriarrak**

IGELDOKO MUSIK@RTE-GUNEA

Kulturaren garrantzia azpimarratzeko eta herritarren gogoak asetzeko asmoz Igeldoko musik@rte-gunea dugu. Herritar guztiengana iristeko urte osorako ahalik eta eskeintza aberatsena eskeintzen da, musika eskola, ikastaroak, Kixmi Aisialdi Taldea, Maiatzeko Musika Festa eta beste ekitaldien bidez.

Helburuak:

Musika eta artearen espresio ezberdinak ezagutzeko, musika ikasteko eta musika kultura zabaltzeko bitartekoak jartzea eta jarduerak antolatzea.

Igeldoko kultur giroa indartzen laguntzea eta kulturaren arloan herrian dauden hutsuneak betetzen laguntzea. Kultura, musika eta arte kreatzio zein espresio edota garapen propioak sortzen laguntzea.

Ezaugarriak:

Igeldoko identitate propioa indartzen lagunduko du.

Euskaraz lan egin eta biziko den gunea da, euskararen bidez kultur integrazioa bultzatuko duena.

Eskolaz emateaz gain kaleratze lanak egingo ditu, erakusleio izango dena eta sormen lanak bultzatuko ditu.

Herriko talde nagusiekin ikastola, gurasoak, gazteak, Herri Kontseilua elkarlanean arituko da.

Erabakiak hartzeko autonomia izango da eta funtzionamendu operatiboa izango du.

Igeldoko musik@rte-guneko musika eskolan, musika tailerra, solfeo eta instrumentuen artean trikitixa, txistua, gitarra, panderoa eta pianoa eskeintzen dira.

Iazko urtean, ikastaro batzuk jarri genituen martxan: sukaldaritza eta fandango eta arin arin ikastaroak. Aurtengoan, berriz, aerobika, arrakasta handia izan duelarik, haur antzerkia, perkusioa eta egur tailaren ikastaroak ditugu denon gustorako.

Bestalde, herriko haur eta gaztetxoaren aisialdiaren inguruan lan egiten duen talde bat dugu, Kixmi Aisialdi Taldea. Urte

osoan zehar ekintza ezberdinen bidez herria, ingurua eta honek eskeintzen duena ezagutzeko dute helburu, herriari bizia emanez. Ekintza ezberdinen artean, Gabonetako eske irteera, asteburuko irteera, Aste Santuko oporretan egun pasako irteerak, tailerrak eta jolasak, Mahai joku txapelketa, udako udaleku irekiak etab.

Aurtun eta hirugarren urtez jarraian, Maiatzean asteburu osoko Musika Festa antolatu dugu, egitaraua honako hau delarik:

IGELDON2003. MUSIKA FESTA Maiatzak 23, ostirala

16:30etan: EMANALDIA:
ELVI sabel hitzuna

17:30etan: TXOKOLATEJANA

18:00etan: ANTZERKIA:

ZABALETA ANTZERKI TAILE-RRAREN
obra

Maiatzak 24, larunbata

18:00etan: KONTZERTUA:
IGELDOKO MUSIKA ESKOLA eta
Tolosa eta Oiartzungo
MusikaA Eskola

22:00etan: JAI-ALDIA:
IGELDOKO "ARTISTAK" taula
gainean

KARIDADEKO BENTAK TALDEA
(Jon Maia eta taldea), bertso
musikatuak

Maiatzak 25, igandea

12:30etan: KALEJIRA:
IGELDOKO ETA
HERNANIKO TXISTULARIAK

PLAZAN KANTARI:
IRAULIO PANTTALONE

14:00etan: BAZKARI ANIMATUA
Itsas-Aurreko Elkartean

18:00etan: TALO-JANA, Igeldoko Talogileak Plazan

18:30etan: ERROMERIA:
ANSORREGI ETA LARRAÑAGA



Igeldoko Herri Kontseilua

